

JOXE ANTONIO REKONDO EA-KO BURUARI ELKARRIZKETA

“EH aurreko HBkoentzat ari da gobernatzen”

Rekondok dio “alkatearen aginpidea ez dela legeak ematen diona”. Inbertsioetan, 2000 urterako pentsatutako 617 milioietatik 43 (% 6a) inbertitu izana salatzen du.

Udal gestioa

“Hernaniko udalean gestiorik ez dago. Gu gestio planaren zain gaude. Denbora gehiegi pasatzen dute erabakiak hartzen.”

Aurrekontuak

“Aurrekontu parte hartzaileena aurpegia zuritzeko gauza da.”

Arazo politikoa

“EHren bideak gehiago dirudi behatza zaurian sartzea, opzio ezberdinak integratzea baino.”



Joxe Antonio Rekondo Kronikalegindako elkarrizketan.

Urte eta erdi pasa da EHk udal gobernua hartu zuenetik. Zein da udal gestioaren zure balorazioa?

Gestiorik ez dago. Kudeaketa haririk ez dugu ikusten eta gestioaren aginte goren EHren komite lokala izango da. Alkatearen aginpidea ez da legeak ematen diona. Udal gobernuan parte hartzeko eskatu zitzaigunean, guk gestio programa eskatu genuen. Ez zitzaigun iritsi, kontaktoak eten ziren, eta gu, oraindik, programaren zain gaude.

Bestalde, udalaren funtzionamenduaren ardatza batzordeak dira. Eta batzordeak oso gutxi egiten dira, erabakiak hartzeko denbora gehiegi behar dute... seriotasun falta haundia dago.

Oposizioko alderdi ez abertzaleek, berriaz, ez dute oposizioa egiteko aukerarik.

Aurrekontuetan parte hartzeko gonbitea izan omen duzue, eta ez zarete sartu.

Guk planteamendu osoa nahi dugu mahai gainean. Lau urtetarako (orain, 2 eta erdirako) zein herri proiektu dagoen jakin nahi dugu. Hirigintza asmoak zein diren; etxebizitzaren espekulazioari nola aurre egin nahi zaion... Hor ez dago eztabaida zabalik.

Guk herri asmoari buruzko planteamendua eskatzen

dugu; hor sartuko gara eztabaidan, baina, bitarteko gauza puntual batean... ez du zentzurik.

Udalari herria ez haunditu nahi izana (Sagastialdea gelditu...) leporatzen diozue?

Sagastialdeko etxebizitzaren proiektua HBren baiezko botoekin onartu zen. Hori hasteko. Orain gelditu egin dute, eta martxa honetan, etxe horiek ez dira izango ez hernaniarrentzat eta ez inorentzat. Bide zuzena, proiektuarekin segi, babes ofizialeko etxeak egiten hasi, eta bitartean, Jaurilaritzarekin herriari dagokion etxe kopurua negoziatzea izango zen.

Santioak, Pilarika eta Konstituzio egunak lan-egun izendatu nahi izateagatik auzitan sartu duzue udala.

Jai egunak Jaurilaritzak erabaki behar ditu, denentzat. Hernaniko Udala ez da nor bere langileei jaieguna inposatzeko.

Desobedientzia nor berak egitea oso ondo dago; baina, ardurak ere nork bere gain hartuta, ez nahi ez duenaren bizkarraren utzita. Guk errekurtsioa jarri genuenean epaitegiak udalaren erabakia atzera bota eta EH gu espainol bezala uzten saiatu arren, gero epaile espainol horren erabakia onartu egin zuen.

Alkateak esana da, udala hartu zuenean udala eta herriaren arteko harremanak gaiztotuta zeudela.

Hernanin harremanak gaiztoak daude, eta usteltzera jo dute konpontzera baino gehiago. Udala EH inguruan dabilen jendea promozionatzen ari da. Eta jende horrekin bai, harremanak hobeak izango dira. Baina, hemen denentzat gobernatu behar da, eta EH aurreko HBko jendearentzat ari da gobernatzen. Gehiengo absolutoa lortu zuten eta hor daude botoak, baina, oso momentu jakinean; orain, EHren gehiengo absolutoa faltsua da.

Su etena bukatu ondoren egoeran gauzak asko aldatu dira. Nola ikusten duzu?

Lehen aldrebestua zegoen eta orain kakaztua. Hemen askatsuna da lehenengo gauza. Opzio ezberdinek aukera berdinekin jokatzea. Gu opzioak elkartzearen aldekoak gara, integrazioaren aldekoak; baina, integrazioa, bakoitzaren nortasuna errespetatuta.

Etorkizunari begira Hernanin bi aukera daude: aurreko haserreak utzi eta integrazio bidea hartzea, edo besteren zaurian sartzea. Eta iruditzen zait EH hortik ote doan. Nik jendea bide horrek Hernaniri zer ekarriko dion jakinaren gainean jarri nahi nuke. □

ETXEBERRI ELKARTEA

Mus eta tute txapelketako sari banaketa gaur

Elkartearen 22 urteurrenako afarian egingo dute.

URTERO bezala, Etxeberri elkartearen urteurrenean, mus eta tute txapeldunek beren sarian jasoko dituzte. Musean Isaac eta Julianek irabazi zuten, martxoan. Tutean berriaz, Cordero eta Manolok.

Paco eta Cristobal gelditu dira bigarren; Mikel eta Xabier hirugarren eta Txefe eta Bilbao laugarren.

Afaria iluntzeko zortziak eta erdietan izango da eta saribanaketa, ondoren. □

TXANTXANGORRI ELKARTEA

Santa Barbarako tiro zelaia gaur zabalduko dute

Larunbat, igande eta jai egunetan 11:30-14:00etara.



Baziak...ia gazte, ezetz jo!

TXANTXANGORRI elkarteak Santa Barbarako tiro zelaia larunbat, igande eta jai egunetan zabalik edukitzen du goizean. Entrenatu nahi duenak

gaurtik aurrera du platerak txikitzen jarraitzeko aukera, arduraduna hilabete osoan oporretan egon eta gaur irekiko baitu berriz ere. □

EDARITEGIA

Ezkiaga 5-Tel.943 552007-HERNANI

Lau Haizeta

SUMINISTROAK **KÄRCHER**

Antziola 10
Tel 943 55 25 61
20120 HERNANI (Gipuzkoa)

Ford

Antziola-Motor
Zerbitzu Ofiziala

- Kotxe berri eta aukerakoen salmenta
- Taller mekanikoa, elektrizitatea eta elektronika
- Aseguruen gestioa
- Finantziaketak
- Kotxeak jaso eta leku berera itzultzen ditugu

Antziola auzoa 12 - HERNANI
Tel. 943 55 57 72 - Faxe 943 55 21 96

Euri urak eta ur zikinak bereziko dituen kolektorea egiten ari dira Antziolan

Tuberia auzoan aldenik-alde doa. Añarbeko Mankomunitatea ari da obra egiten.



Antziolako kolektorea egiteko 120zm-ko tuboa sartzen.

ANTZIOLAN kolektorea egiten ari dira. Kolektoreak auzoa goitik behera zeharkatzen duen tuboa du. Martxan jartzean, euri urak eta etxeetako ur zikinak jaso eta apartatu egingo ditu. Obra egiten Añarbeko Mankomunitatea ari da. Proiektu bera Santa Barbaran egin berria dute, eta Antziolakoa bukatzean biak Añarbeko Saneamendu sarean sartuta geldituko dira.

AUZO BARRUTIK

Hasieran obra, auzoan kanpokaldetik egitea zen proiektua, Arizmendi alderako bidetik. Baina, Lasarte eta Usurbilerako ur tuboa dagoeenez, auzo barrutik pasa behar izan dute. Obraren aurrekontua, Santa Barbara eta bietakoa, 46 milioiekoa da. □

ASTEBURUKO PARTIDUAK

LARUNBATA

■ FUTBOLA

Gorengoen maila (Mutilak)
Berazubín, Tolosan, 16:00etan.

Tolosa - **Hernani**
Gazteen Bigarren Maila
Zubipen 15:30etan.

Hernani - Texas
Kadeteen ohorezko liga:
Zubipen 17:30etan.

Hernani - Bergara
Kadeteen 2.maila:
Elorri 11:30etan.

Intxurre - **Hernani**

■ ERRUGBIA

Euskal Liga: (Neskak)
Elorri 15:30etan.
Elorrio -**Hernani**/Zarautz
Jubenilen Euskal Liga
Anoetan 16:00etan.

Bera Bera - **Hernani**
Kadeteak Cote Basque
Landaren 16:00etan.

Hernani - Urruña

■ PELOTA

Gipuzkoako liga
Eskuz Binaka Afizionatuak
Intxaurren 18:00etan.
Sarasua Olan - Intxaurren

■ BOLEIBOLA

Euskadiko liga
Kiroldagian 17:00etan.
UPV Hernani - **Hernani KE**

■ WATERPOLOA

Euskal Herriko Liga
Kiroldagian 13:00ean
Hernani - Gasteiz

IGANDEA

■ FUTBOLA

3.maila (Mutilak)
Zubipen 17:00etan.

Hernani - UPV
Haurren Ohorezko Liga
Mundaizen 12:00etan.

Aldapetarrak- **Hernani**

■ ERRUGBIA

1 Liga Nazionala (Mutilak)
Landaren 11:30etan.
Hernani - Kakarraldo
2 Mailako Euskal Liga: (Mutilak)
Landaren 11:30etan.
Hernani - Abanto Minero

■ WATERPOLOA

Gipuzkoako Liga
Ermuan 09:30etab
Hernani - Eibar

■ HITZ BITAN

✓ ERRUGBIA

Mutilen Nazional mailako taldea azken postuan da partidurik irabazi gabe. Bihar Kakarraldoren kontra jokatuko du Landaren 11:30etan. Kakarraldo ere beheko postuetan da sailkapenean eta hernaniarrek badute lehen garaipena lortzeko esperantza. Partidu guztiak galdu arren, guztietan izan dute irabazteko aukera hernaniarrek.

✓ MENDIRIZ MENDI

Mendiriz Mendiko gaztetxoak Alleku mendira joango dira bihar. Hauen aitzakian hain gaztetxo ez direnek ere badute tokia egun pasa egiteko. Autobusa goizeko 08:00etan irtengo da Atsegindegitik

✓ FUTBOLA

Mutilen 3. mailako taldeak UPV taldearen kontra jokatuko du bihar Zubipen 17:00etan. Partidua oso garrantzitsua da, bi taldeak 12 eta 13 postuetan baitaude 12na punturekin. Azken lau partiduetan zortzi puntu lortu dituzte hernaniarrek (bi irabazi eta bi berdindu); ratxari eutsiz gero gora joango dira.

✓ WATERPOLOA

Hernaniarrek Gasteizen kontra jokatuko dute gaur Euskal Herriko ligako lehen partidua, 13:00etan kiroldegian. Sasoi puntu onean daude eta ondo ibiliko direnaren esperantza dute. Bihar Gipuzkoako ligako azken partidua jokatuko dute Ermuan Eibarren kontra, baina, txapeldun gelditu direla jakinda.

✓ ELUR-TXORI ELKARTEA

XVIII Sagardo lehiaketako afarirako elkarte lepo beteko da. Juradua osatuko duten 80 afalдарrez gain beste 20 bat izango dira sagardozale, sukaldari eta abarren artean. Parte hartuko duten sagardotegiak: Urnietako Setien eta Urruzola; Zubietako Astiazaran; Astigarragako Oiarbide eta Hernaniko Alberro, Rufino, Zelaia, Elorabi, Iparragirre eta Altzueta. Afaria 20:00etan hasiko da.

✓ ZINEA BITERIN

Space cowboys (Espazioko ganaduzaleak) filma botako dute gaur. Hiru sesio izango dira: arratsaldeko 17:00etan bata, 19:30etan bestea eta gaueko 22:30etan azkena. □

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

►Taxiak: 943 550093
►Udaltzaingoa: 943 333288
►DYA: 943 464622
►Autobusak 943 556662
►Anbulatorioa: 943 557750

✚ FARMAZIAK

►Egunez: Bulnes
Etxeberri
☎ 943 557738
►Gauetz: Díaz
Andoain, Nagusia, 19
☎ 943 592057

HERIOTZAK

Maximina Tolosa Zubeldia
Ostegunean hil zen 78 urte zituela
Hileta elizkizuna gaur, larunbata, zazpietan, Juan
Bataiatzailearen Parrokian.



Hernani Institutua
A. Iturriaga - K. Labaka

TXIRBIL HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIOA

- CNC fresan programazioa eta eragiketa
- CNC tornan programazioa eta eragiketa
- Mekanizazioa ohizko fresadoran
- Mekanizazioa ohizko tomoan
- Planoen interpretazioa
- Segurtasuna Fabrik. Mekanikako industrian
- Ingurugiroarekiko arreta

Ikastaroaren orduak	288
Lekua	10
Ordutegia	4etatik 8etara
Norentzat	Langabetuak
Hasiera	2000-11-20

EUROPAKO FONDO SOZIALAK
ERE FINANTZATUA



DIRUZ LAGUNDUA



IZEN EMATEAK: Azaroaren 15a arte.

Karmelo Labaka 7 ●Tel. 943 5551 958 ●Faxa: 943 330 550

OIALUME
BiToKiA.



Igande eta jai egun guztietan 19:00etatik zabalik.

Bihar igandea 20:00etan

ETZAKIT

OIALUME AUZOA (HERNANI)

☎ 943.55 29 38

Eskulana • Arte Ederrak
AKURRI

LABOREAK
Haizea
KORTSETEGI - MIHISEDENDA

ESKULANEN ERAKUSKETA
Azaroak 6tik 11ra
17:00etatik 20:00etara
BITERI KULTUR ETXEAN
Azken egunean 2 opariren zozketa.

IRAGARKI MERKEAK

■ Neska bat behar dut
umeak zaindu eta etxe
lanak egiteko.

☎ 943.557190

Asun
Esna!
Bitxigintza



Enkarguzko lanak,
zilararekin eta urarekin

Bitxien konponketan
egiten ditugu

Larramendi 3
HERNANI 20120
Tifa. 943-33 04 78